



3 PSE-EE

Urte bete galdu dela salatu du Zaballosek

Lasarte-Oriako PSE-EEko ordezkariak agerraldia egin zuen ostiralean Bilduk udal gobernua hartu zuenetik urte bete denean. Zaballosek udal gobernua ezintasuna besterik ez du erakutsi hamabi hilabete hauetan. Aurrekontuak oraindik aurkeztu gabe daudela salatu zuen baita desinformazioa dela nagusi.

4-5 KIROLEZ KIROL

Asteburuan ez da kirol eskaintzarik falta izan

Areto-futbola, errugbia, pilota, atletismoa, igeriketa, eskola-kirolaren festa handia... Nekaezin dabilta herriko kirolariak, eta asteburu honetan batzuek denboraldia amaitutzat eman badute ere, beste batzuek erakutsi dute udaberrian gogor ari direla lanean udarako oporrak iritsi bitartean. Kirola egitearekin batera, euren gorputzak zaindu asmoz.



Kukuka eta Oreka TX, ikusgarri

Musika, dantza eta zinema uztartuta giro berezia sortu zuten

Ez gaude batere ohituta zuzeneko musika, dantza eta zinema aldi berean ikustera. Baina horixe egin zuten Kukuka eta Oreka TX-eko lagunek larunbat arratsaldean Manuel Lekuon kultur-etxean. Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte-bikotearen txalaparta doinuei jarraiki, herriko dantza eta antzerki taldeko lagunak aritu ziren koreografiak lantzen. Aldi berean, Nomadak TX pelikula ikusi ahal izan zuten bertaratu ziren guztiek.

Emozio salda baten antzekoa izan zen larunbat arratsaldeko emanaldia. Zuzeneko musikak duen indarrari Kukukako lagunek dantzarako duten abilezia batuta, ileak laztu zitzaizkion bati baino gehiagori ordubete inguru iraun zuen ikuskizunean.

Nomadak TX

Musikari eta dantzariak euren lana egiten zuten bitartean, nazioartean sona handia lortu zuen "Nomadak Tx" pelikula-dokumentala ikusi ahal izan zuten bertaratuek.

Munduan zehar txalapartaren soinua zabaldu eta era berean beste kulturetako instrumentu eta ezagutzetatik aberastea posible dela erakutsi zigun bikoteak. Izotzeko plakekin txalaparta bat egitera ere iritsi ziren Antartika aldean.



Zuzeneko musikaren indarrak, Kukukako dantzari abileziak eta Nomadak Tx pelikularen irudiek ikusgarri egin zuten emanaldia.

Kukuka, bikain

Oreka Tx-ekin batera aurkeztutako emanaldiarekin eman dute amaitutzat horren aberasgarria izan den dantza eta antzerki astea.

Azken saioan ere, adin tarte guztietako neska-mutilak oholtzaratu ziren, gaztetxoetatik hasita, helduetaraino eta bakoitzak bere hondar aletxoa jarri zuen ikuskizuna are ikusgarriagoa izan zedin.

Amaiera hunkigarria

Mikel Laboa zenaren "Martxa baten lehen notak" kantuaren doinuekin, Oreka Tx-eko mutilak eta Kukukako lagunek oholtzaratu ziren publikoaren esker ona jaso eta txalo zaparrada luze bat jasotzeko.

Azkenik, Martinez eta Ugartek hitz batzuk esan



Adin tarte guztietako dantzariak oholtzaratu ziren, haur, gazte zein heldu.

nahi izan zituzten publikoaren aurrean eta esker ona adierazteaz gain, "sorpresaz beteriko" hurrengo proiektuan buru-belarri lanean dihardutela azaldu zuten.

Joxe Mari Agirretxe eta Mainer Oartzabal Kukukako kideek aldiz, esker oneko hitzak izan zituzten hamabostaldian parte-hartu duten guztientzat.



IEFPS USURBIL GLHBI



AURREMATRIKULA maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

Goi-mailako Erdi-mailako HEZIKETA ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administraritza



Energia eta ura Mantenimentua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Adituak dio



Pili Kastresana

Duela 45 urte, jaio eta auzora iritsi nintzenean, auzoa, 6 baserri eta 12 etxez osatua zegoen. Sagarrondo inguratua, harrizko bide xeble bat zegoen eta dakidenez, bide hartan zebilen kotxe bakarrenetakoa zen osabaren 600-a. Buenos Aires eta Lasarteko gazteen artean izaten ziren lasterketa, borrokak eta San Juan Suan metak erretzearen kontuak, herriko eta auzokoen artean, "pike" sana zegoen, garai hartan ere.

Etxeak egiten hasi eta auzoan familia berriak osatu ziren. Lehenagotik auzoak izaera propioa baldin bazuen, jende gazte eta gogotsuarekin, desberdintasuna areagotu eta bertakoekin elkartuta auzoarentzat lanean hasi ziren. Zorionez, zabaletarrok guretzat, gure semeentzat eta gure auzoarentzat egokiak ziren erabakiak hartzen hasi ginen. Horietako bat, duela 25 urte festak antolatzea.

Lehen urteetan, Eulogio La Serenak taberna antolatzeko, garajea utzi zuen. Ondoren auzolanean, egun duguna egin zen. Antonio Blas-en garajea, ordea, ekintza eta jolasen lekuko bihurtu zen, egun, zorionez, mantentzen dena.

Festen helburua auzotarrak jai giro euskaldunean biltzea zen. Umeei, protagonismoa eman zitzaien aste osoko egitarauarekin. Festekin baserrietako bizilagunak auzora gehiago gerturatzea bilatzen zen eta hortik sortu zen proba mixta. Orduan, Telleri Gaineko etxeak dauden tokian, belaze ederra zegoen eta bertan antolatu zen lehenengoz, trontza mozketa, lokotxak biltzea, txingak eta lasterketa txikia, Txoko, Sollane, Larrekoetxe eta Etxetxoko baserrikoen artean.

Nonbait auzolanak funtzionatu badu, Zabaletan izan da. Horregatik sortu zen elkarteari Zabaleta Auzolan Auzo Elkarte jarri zitzaion. Auzolana oso polita da, eta ondo eginda, gauza on asko sor daitezke. Horregatik zaindu behar da gure elkarbizitza eta gure elkarlana, beste 25 urte barru gure festaz harro egon gaitezen.

Festa garaia

Festa garaia ofizialki hasi da. Zabaleta auzokoak dagoeneko atzo amaitu ziren eta batzuen ajeak astelehen luzea eragingo duen arren, hurrengo asteburuan eta festetan pentsatu behar da. Herriz-herri eta auzoz-auzo ibiltzeko garaia iritsi zaie gazte eta parranda zale askori.

Uda giroa nabaria da. Ikasleek aurki oporrak hartuko dituzte eta kalean hau ere somatzen da, mugimendu gehiago dago. Unibertsitatean dabilentzat azken txanpa gaintzea geratzen zaie errekeraketak orain ekaina uztaila bitartean izaten direlako, eta ez irailan garai batean bezala. Dagoeneko hala ere, klaserik ez dute eta ia oporretan sentitzen dira.


Herrian festarako hurrengo hitzordua San Juan suan

izango da. Egun horretarako herritar batzuk dagoeneko entsegutan dira suaren inguruan soka-dantza txukuna eta dotorea herritarren aurrean aurkezteko. Ondoren bai, lasarteoritarrok kaleak hartuko ditugu, ekainaren 27an San Pedroak iritsiko dira.

Aurtengoan festak antolatzeko udalak parte-hartze prozesua jarri zuen martxan eta ikusi behar nolako egitaraua prestatu dugun denon artean batez ere, ekonomikoki udala bere hoberenean ez dagoela ondo dakigunean. Krisiak krisi, herritarrek festetan murgilduko direla zalantzarik ez dugu. Gogoratu, Sorgin Dantzarako entseguak laister hasiko direla eta Gazteen Sorgin Dantzan parte hartzeko, aurrez izena eman behar dela, ekainaren 12a baino lehen, kultur etxean.

Hitz eta pitz

Zer moduzko jaiak dira Zabaletakoak? Joaten al zara?



Mila Intsausti

Auzo batean jakina, auzotarrak eurek antolatzen ez baldin badituzte ez dago festarik. Gainera, Zabaletan santurik ez daukate eta urtero euria egiten die. Santuren bat topatu beharko lukete. Orain jada ez naiz festatara joaten, Zabaletara ere aspaldi ez naiz joan, baina gazteago nintzenean bai. Zabaletan, gaueko berbera eta igandeko bazkaria gustatzen zitzaizkidan.




Marian Bueno

Oso festa onak dira Zabaleta auzokoak. Jendeak parte hartzen du, guraso, seme-alaba, gazte... Aurten gainera bertan bizi naiz, bertatik biziko ditut. Lehen arratsaldean umearekin joaten nintzen, edo gauez buelta bat ematera, aspalditik. Berbenak ere badaude gazteentzako, eta bertsolariak, bazkari herrikoia... hori gustatzen zait. Dena dago ondo.



David Egizabal

Ez naiz oso parranda zalea eta ez naiz sekula festa hauetara igo. Badakit baina, oso oso herrikoia eta parte hartzailea dela eta berezia, Zabaletakoek maila handia ematen diote bere auzoko festei, eta auzolanean antolatu. Auzotarrak hor ibiltzen dira eta hori da inportantea, jendeak parte hartzea. Denek esaten didate ondo daudela eta egunen batean joango naiz.



Ramon Salazar

Inguruko lehenengo festak, urtero izaten dute arrakasta, Zabaletak zerbait berezia daukalako: herritik gertu dagoen auzo emankorra da, aktibitate askokoa. Jendeak parte hartzen du, denentzat daude gauzak, astean zehar txikienez, guztientzat asteburuan eta igandean, batez ere, helduentzat. Umeak, irribarretsu, ondo pasatzen ari direla ikusita disfrutatzen du gehiena.

Iruditan



40. hamarkadako irudian goian eskubian, zelaia eta etxe batzuk kokatzen ziren egungo Zabaleta auzoan.

Zabaleta auzoaren nortasuna

Auzoa kokatzen den lekuan zelai zabalak zeuden garai batean eta baserri gutxi batzuk. 40. hamarkadaren bueltan, Buenos Aires izeneko etxetxo bat eraiki zen Sausta baserritik gora eta ondoren beste asko etorri ziren. Inguruak Buenos Aires izena hartu zuen, askok hala deitzen diote oraindik. Ondoren, Entidad Zabaleta izendatu zuen udalak. Baserri inguruak beti izan zuen bere nortasuna eta auzotar berriek hau mantentzen saiatu ziren ere.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

POLITIKA



Jesus Zaballos Lasarte-Oriako PSE-EEko ordezkaria ostiralean egindako agerraldian.

“Urtebete galdu da”

Alkatea aldatu zenetik Udalaren urtebeteko balantzea egin du Jesus Zaballosek

Lasarte-Oriarentzat atzerapausoa izan da ekainaren 11n Pablo Barrio alkate izendatu zutenetik pasatutako urtea PSE-EE-ko ordezkaria den Jesus Zaballosentzat. Bere iritziz udalean ez da kudeaketarik egon eta argi ikusi da udal agintarien ezintasun eta ezjakintasuna.

Udaletxe berria edo Gaztekluba jarri zituen adibide Jesus Zaballosek, bi eraikinak bukatuta baina hutsik daudela nabarmenduz, “altzariak erosteko gai ez direlako”. Okendoko aparkalekuari ere aipamen berezia egin zion Zaballosek agerraldian, “herriko arazo handiena” aparkalekuena delako, eta aparkalekuak alokairuan jarrita, Udalak diru-sarrerak izango lituzkeela salatuz, “kudeaketa txarragatik dirua galtzen ari dira”.

Ezintasuna

Udal agintarien moteltasuna salatu zuen aurrekontuak egiteko urtebete behar izan dutelako. Udalaren ezintasuna eta koherentzia falta ere kritikatu zituen, “ezintasuna kanpoko

enpresa batek egin dituelako aurrekontuak, lehenengo aldiz Udala sortu zenetik, eta koherentzia falta gastuak murrizten eta dirua aurrezten ari direla esan bai, baina gero ez dutelako udal langileengan konfiantzarik eta kanpokoak kontratatzen dituztelako. Desfilarroaren politika darabilte, aurrekontuan gastuak azken bost urtetako handienak dira” Zaballosek azaldu zuenez.

Hotela eraiki

Udala geldi dagoela esan du Zaballosek behin eta berriro, babestutako etxebizitzak egiteko ezer ez dela egin, ezta industrialdeak jartzeko ere eta beste proiektu batzuek arriskuan jarri direla: “40 lanpostu eta kanpoko igerilekua erabiltzeko aukera emango dituelako herriarentzat hain

garrantzitsua den Hotelarena adibidez”.

Gainera, Udalaren gardenetasun eta informazio falta salatu zuen Zaballosek, “Batzordetan jada egindako gauzan eta erabakien berri ematen da, ez da eztabaidatzen. Batzarretan galdetu arren ez dute erantzuten eta ez digute eskatutako informazioa ematen. Urte bete daragu alkateak sinatutako dekretuak eskatzen eta ez dugu kopiarik”. Zaballosen iritziz gobernuko kideek herritarren parte hartzearen alde daudela saldu nahi dute, baina gero Udalean ez dago horrelakorik. “Ez dute beste alderdiekin eta batez ere PSE-EEekin akordiorik nahi. Hauteskundeetan boto gehiena eskuratu zuela ahaztu eta gure ahotsa isildu nahi dute. Batzarretan eskua luzatu eta mespretxatzen dute”.

Beraz, Jesus Zaballosek adierazi zuenez galdutako urtea izan da hau “Udal Gobernuak ez daki, ez du erantzuten, ez du egiten ezta egiten uzten ere”.



Diploma banaketa institutuan- Batxillergoko bigarren mailakoek euren diplomak eskuratu zituzten ostiralean. Ekitaldi berezian Jon Martin eta Esther Arrojeria ohorezko matrikulako ikasleek oparitxoak jaso zuten eta sari bereziak eman zitzaizkien Maialen Iñarra, Selene Prieto eta Ane Aizpurua ikasleei. Veronica Gonzalez ikasle ohia eta berriki “El Conquis” telebista saioan izandakoa gonbidatu zuten bertara eta irakasle baten bertsoak tarteko agur esan zioten ikasleek urteetan euren bigarren etxea izandakoari.

GAZTEKLUBA

Senda Viva-ra irteera

Gazteklubeko LH3 eta LH4 mailako gaztetxoek Gazteburua izango dute ekainaren 17an, igandean. Oraingoan Senda Viva parkera irteera izango da. Goizeko 09:00etan Hipodromo Etorbidetik aterako da autobusa eta arratsaldeko 20:30ean bueltatuko da. Gazteklubeko antolatzaileek aipatu dutenez, bazkaria, merienda, txankletak eta toalla eraman behar dituzte.

Ttakupeneko bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, berriz, 33 euro. Izena ematea Ttakun Kultur Elkartearen, 943 37 14 48 telefono zenbakian edo aisia@ttakun.com helbide elektronikoan egin daiteke. Azken eguna ekainaren 15a izango da.

DANOK KIDE

Kantuko ikasleen emanaldia

Danak Kide elkarteak antolatzen dituen VII. Musika Topaketen barruan, Kantu emanaldia izango da ostirala honetan, Ama Brigitarren komentuan, 19:30etatik aurrera.

Francisco Escudero musika Kontserbatoriko Kantu ikasleek bakarka Javier Perez de Azpeitia piano jolearen laguntzaz, musikari handien operetako zatiak, zein obra handietako doinuak eskainiko dituzte, hala nola, Bizeten Carmen-eko “Prés de remparts de Seville” edo Haydn-en Stabat Mater-en “Pro Peccatis suae gentis”.

UDAL EUSKALTEGIA

Udako Ikastaro trinkoak aurkeztu dira

Lasarte-Oriako Udal euskaltegiak 2012ko udan egin daitezkeen ikastaroak aurkeztu zituen ostiralean. Egiaztapen mailen azterketak, hau da, hizkuntza eskakizunak eta HABEren 1go, 2. eta 3. mailak prestatzeko ikastaroak izango dira. Ikastaroak uztailaren 2tik 27ra izango dira, astelehenetik ostiralera. Hiru orduko saioak izango dira, 9:30etik 12:30era.

Udal Euskaltegiak jakitera eman duenez, 16 urte gorakoentzako ikastaroak dira. Prezioa 90 eurokoa da, langabetuek eta gazte-txartela dutenek %10eko deskontua izango dute. Dirulaguntzak ere badaude.

Matrikula garaia ireki da eta ekainaren 15era arte izena eman ahalko da Udal euskaltegian, Beko kale bidea 1 zenbakian, honako ordutegian, 8:30etik 19:15era.

ALDUNDIA

Ardatz nagusiak aurkeztu zituen

Manuel Lekuonan bilera irekia egin zuten Gipuzkoako Aldundiko kideek. Bertan euren politikaren bi ardatz nagusien berri eman zieten herritarrei ondoren hauen iritzia jasotzeko.

Aldundiak finkatu dituen bi ildo nagusiak dira batetik gatazkaren konponbidean parte aktibo izatea eta bestetik, bizi dugun egoera ekonomiko larriari aurre egitea. Horretaz gain Gipuzkoa Berria markaren nondik-norakoak azaldu zituzten eta baita sarean herritarrek dituzten baliabide berriak ezagutzera eman. Besteak beste, gipuzkoaberri.net-en prentsa bulego digitalera sar daiteke edozein herritar erakundeak emandako informazio guztia eskuratu ahal izateko. Bertan jasotzen dira ere agerraldien bideoak eta txostenak. Aldundiaren nahia herritarrengana hurbiltzea da eta horretarako ostiralekoa bezalako bilera besteak beste.



IGERIKETA.-

Ibarburu eta Martin, zilarrezko mutilak

Iñigo Ibarburuk Espainiako txapelketarako beste marka gutxienekoa bat egin zuen

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak Udako denboraldian murgilduta daude. Txapelketaz txapelketa dabilta eta domina eta marka berriak lortzen ari dira. Lehengo asteburuan, maiatzaren 26 eta 27an, Richard Oribe Sarian, Bidasoako jaitsieran eta Eskolarteko jokoetan egon ziren herriko taldeko igerilariak.

L arunbatean, maiatzaren 26an, Richard Oribe sarian bigarren postua, Espainiako txapelketarako gutxieneko berri bat eta 11 marka pertsonal egin zituzten Borja Apeztegiaren mutil eta neskek.

Entrenatzaileak azaldu digunez, bederatzi igerilari izan ziren eta guztiek proba batean behintzat markak hobetzea lortu zuten.

“Marka pertsonal kopurua handia izan da eta horrek bakoitzaren helburuak lortzeko bide egokian goazela sinesten laguntzen du,” aipatu digu.

Domina eta markak

Iñigo Ibarburuk izan zen txapelketa honetan emaitza hoberean lortu zituena.

100 m. tximeleta proban aurretik zuen marka bi segun-

do eta erdian hobetzea lortu zuen, 1'02"21. Eta marka honekin Sariko bigarren postua eta zilarrezko domina lortu zituen.

Gainera, igerileku luzeko Espainiako txapelketarako marka gutxienekoa egin zuen eta honekin Estatuko txapelketan lau probatan izango da lasarteoriatar gazteak.

Era berean, arestian aipatu bezala, taldeko guztiek markak hobetu zituzten.

Mikel Esnal 50 m. bizkar proban jaitzi zuen bere marka.

Mikel Arribillagak, 100 m. bular proban marka egin zuen eta 50 m. bizkar proban bere markatik gertu geratu zen.

Haitz Mitxelenak 100 m. tximeleta eta Kevin Iglesiasak 50 m. libre proban hobetu zuten haien marka.



Buruntzaldea IKT-ko gazteek lan ona egin eta haien markak hobetzea lortu zuten Richard Oribe sarian.

BURUNTZALDEA IKT

Mikel Sotok bi probetan lortu bere marka hobetzea, 100 m. bular proban eta 200 m. libreetan.

Eta Itsaso Tolosak, Naiara Lizasok eta Garazi Alkorkak 50 m. libreetan hobetu zituzten markak.

Bidasoako Jaitsiera

Bestalde, Juan Vicente Martin masterra Bidasoako Nazioarteko jaitsieran izan zen.

7,7 kilometroko proba honetan emaitza paregabeak

lortu zituen. Bere kategorian bigarren eta sailkapen orokorrean hirugarren izan zen.

Borja Apeztegiak azaldu digunez, Juan Vicente Euskadiko Luzera Handiko Ligako probatan parte hartzen ari da. Kontxako Zeharkaldian bigarren postua lortu zuen eta proba honetako emaitzarekin Ligako sailkapenean aurreko postuetan jarri da.

Eskolarteko Jokoak

Era berean, Ainara Garcia

gaztea Zarautzen izan zen, Gipuzkoako Selekzioarekin Euskadiko Eskolarteko Jokoean parte hartzen.

“Esperientzia berria berarentzat eta bikain aritu zen,” aipatu du Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak.

Izan ere, 100 eta 200 m. bular probetan lehiatu zen eta bietan laugarren postuan amaitu zuen. 200 bular proban gainera, bere marka 5 segundotan jaitea lortu zuen gazteak.

GIMNASTIKA.-

LOKEko zilarrezko neskak

LOKE-ko gimnastek azken asteetan, hainbat txapelketa izan dituzte. Lehengo asteburuan Gipuzkoako txapelketan izan ziren eta aurrekoan Udaberri txapelketan. Bietan dominak lortu zituzten gimnastek eta entrenatzaileak oso pozik agertu dira lortutako emaitzekin.

Gipuzkoako txapelketa

Maiatzaren 26an, Bergaran, izan zen Gipuzkoako txapelketan Aizpea Arroyo jubenilak bere mailako zilarrezko postua eskuratu zuen.

Aizpea jubenil b mailan lehiatu zen eta bigarren postua lortu zuen xingolarekin egindako lanean eta bosgarren izan zen borrekin.

Honela, sailkapen orokorrean 2. postua eskuratu zuen eta hurrengo ikasturtean A mailan lehiatuko dela aipatu digute LOKEko entrenatzaileak.

Senior A mailan, Garazi Gomez borrekin bigarren



LOKE, Sasoeta eta Landaberriko taldeek lan ona egin zuten Udaberri txapelketan.

postua eskuratu zuen eta xingolarekin, berriz, bosgarrena.

Ariadne Aguado kadetea seigarren izan zen borrekin eta 7. uztai lanean. Sailkapen orokorrean seigarren izan zen.

Kadete taldeak ere 6. postua lortu zuen.

Asteburu honetan guztiak Euskal Ligan izan dira lehian.

Udaberri txapelketa

Bestalde, maiatzaren 20an,

Hernaniko kiroldegian egin zen Udaberriko txapelketako azken saioan izan ziren infantil eta alebinetako taldeak.

Infantil mailako taldeak, Naroa ,Gabi, Nerea eta Hai-zeak osatutako, 2. postua lortu zuten uztaietara egin zuten lanaren ostean.

Alebin mailan, berriz, Landaberri taldeak 21. postua eta Sasoeta taldeak 15. postua lortu zuten.

LABURRAK.-

Luken Carbayeda txirrindularia hirugarren

Buruntzazpi Txirrindularitza eskolan dabilen Luken Carballeda lasarteoriatarra infantil mailako Gipuzkoako errepedeko txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen, maiatzaren 19an.

Urretxun egin zen lasterketan Lasarte-Oriako gazteak bronzeko postua lortu zuen Julen Mundin eta Jokin Alberdiren atzetik helmugara iristean.

Era honetara, gazteak egiten ari den denboraldi paregabearen saria lortu du. Izan ere, besteak beste, Donostialdea eskualdeko txapelketetan, hala nola, Ibaeta eta Zumaian irabazle izan da Buruntzazpi eskolako gaztea.

Bestalde, Buruntzazpi eskolako infantil taldeak Gipuzkoako taldekako erlojupekoan laugarren postua eskuratu zuen.

Eskola kiroleko izena ematea

Eskola Kirolako arduradunek jakin arazten dute, hurrengo 2012-2013 ikasturterako Eskola Kiroleko jardueretan izena emateko epea ireki dela.

Izena emate orriak banatu dira dagoeneko eta hauek ekainaren 8a baino lehen Landaberri ikastola edo Sasoeta-Zumaburu ikastetxean eman behar dira.

Ostadarreko futbol taldeen deialdia

Ostadar SKT-ko futbol taldeak hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira. Horregatik, herriko gazteei deialdia egiten die hurrengo egunetan maila ezberdinetako taldeetan proba egitera.

Astelehen eta asteazkenean, 18:00etan alebin mutilak (2001) eta infantil neskek entrenamendua izango dute; 19:30ean kadete mutil eta neskak (1998 eta 1997). Asteartean eta ostegunean, berriz, 18:00etan infantil mutilak izango dira eta 19:30ean, jubenilak (1994,1995 eta 1996).

Agenda

Manuel Lekuona kultur-etxean



Udako txoko eta kanpaldietako bilerak

Osteguna 7

17:00etan, HH3-HH4 (euskaraz)
17:40etan, HH3-HH4 (gaztelaniaz)
18:20etan, HH5-LH2 (euskaraz)
19:00etan, HH5-LH2 (gaztelaniaz)
19:40etan, Abuztuko programa-zioa

Ostirala 8

17:45etan, LH3-LH6 (euskaraz)
17:00etan, Mendigorria LH3-LH4
18:15etan, Valdegovia LH5-LH6
19:00etan, LH3-LH6 (gaztelaniaz)
19:30etan, Altzo LH2-LH3

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 5, 19:00etan

Andre Joakina-Enea Haurreskolako guraso elkartearen batzarra izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 5, 19:00etan

Lasarte-Oriarekin lotura duen Dorleta Urretabizkaia aktore eta antzerki zuzendari laguntzailearen klase irekia, Kukuka antzerki eta dantza eskolaren X. urteurrena dela eta.

ATSOBAKAR PARKEAN

Igandea 10, egun osoa

Semblante Andaluz elkarteak Rocioko Amaren erromeria antolatuko du.

Usurbil

Bertsolaritza

ARTZABAL BASERRIA

Astearte 5, 19:30etan

Jon Maia bertsolariak "Doinua eta Kantaera" hitzaldia eskainiko du.

Hitzaldia

SUTEGI KULTUR-ETXEA

Ostirala 8, 18:30etan

"Errausketari ateak ixten" dokumentalaren proiektzioa. Itaya gazte asanbaldak eta Usurbil Zero Zaborrek antolatua.

Astigarraga

Musika

J. BARANDIARAN PLAZA

Larunbata 9, egun osoa

Norberto Amadoz Musika eskolako kideek XII. Musika Eguna ospatuko dute.

Lasarte-Oria

Musika

AMA BRIGIDATARREN KOMENTUA

Ostirala 8, 19:30etan

Donostiako Francisco Escudero kontsebatoreko kantuko ikasleen kontzertua, Danok Kide elkarteak antolatzen dituen VII musika Topaketan barruan.

Hitzaldia

ANTONIO BLAS PLAZAKO LOKALEAN

Ostirala 8, 19:00etan

Jakoba Errekondo agronomo eta paisajistaren hitzaldia antolatu dute Zabaleta auzolan elkarteko lagunek. Gaia loreak, landareak etab.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekainean zehar

"Garunak Lantzen Unibertsoan" marrazki erakusketa ikusgai izango da.



MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ekainaren 8a arte, 18:00etatik 21:00etara

Lasarte-Oriako danborradako 1947tik gaur egunera arteko argazki erakusketa.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Aste honetan zehar

Saharako errefuxiatuak bizi diren Tindouf-eko kanpamentuetako argazkiak ikusgai.

Bestelakoa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 5, 19:00etan

Aste berdea egingo da gure herrian.

Udalaren oharra

Dantzari Txiki egunean gertatutakoa dela eta

Lasarte-Oriako Udalak aurreko Igan-dean pasatakoaren inguruan zenbait argibide eman nahi ditu:

Dakizenez Igan-dean dantzari txiki eguna ospatu zen eta Okendo plazan beraien dantza emanaldia egin zuten. Bertan, ikusi zen irudia ez zen batere ona izan, dantzako arduradunak eta boluntarioak emanaldiaren aurretik erratza pasatzen ikusi baikenituen.

Beraz, azalpenen aurretik barkamena eskatu nahiko genieke igande honetan beren saio normaltasun osoz egiterik izan ez zuten dantzari eta zaletuei.

Gertaera hauek argitzeko, hala ere, denboran atzerago joan beharra dago. Jasandako krisia eta diru sarreren murrizketa dela eta 2010eko urtarrilaren 1ean Gobernu Batzarrean igande eta jai egunetan garbiketa eteteko erabakia hartu zen. Ondoren, 2011ko urtarriletik aurrera bi salbuespen ezarri ziren: urtarrilak 1 eta abenduak 25. Geroago, salbuespen gehiago ere ezarri ziren eta gaur egun ondorengo jai egunetan garbitzen da: otsailak 19 inauteriak, apirilak 6 eta 9 aste santua, uztailak 1 San Pedro jaiak, uztailak 22

artisans azoka, urriak 21 euskararen maratonia, urriak 28 Ostadarren krosa, ekainak 3 Zabaleta jaiak eta gainera 3 egun gehiagotan zerbitzua emateko aukera du.

Baina noski, hainbat ekimen ez dira burutzen data ohietan eta ondorioz plaza zikina egoten da eta arazo honi aurre egiteko, momentuko neurri bereziak hartu behar izaten dira.

Aste bukaera honetan, Kukukak bere X.urteurrena ospatzen zuen eta Ostadarreko erregionalak mailaz igotzea lortu zuen ikaragarritzko festa bihurtuz larunbata. Eta beraz, igandean plaza inoiz baina zikinago zegoen eta ez zegoen inor garbiketa lanak egiteko.

Hau dena azalduta, Udalak garbi du ekintza kulturalez beteriko aste bukaera honetan aurreikuspen falta izan duela eta dantzari txiki egunerako modu honetako beste edozein ekimenetarako bezala plazak garbituta egon behar zuela.

Hala ere, aste honetan Udalean burutu den hausnarketa hau baino sakonagoa izan da. Garbiketaren arazo auzoz auzoko bileretan ere herri-tarren artean oso garrantzizkotzat jo

baizen eta gaia tratatzen hasita baitzegoen.

Lehenago eta behin, parte hartze batzordean lanean ari dira auzoz auzokoaren lehenago bi pausuen ondoren, 3.pausu batean garbiketaren gaia lantzeko bere aspektu guztietan. Horrek irailetik aurrera lanketa garrantzitsu bat izango du helburutzat eta garbiketaren arazoari bere osotasunean konponbidea ematen saiatuko da.

Bestetik, momentu honetan zenbait neurri hartuko ditu Udalak Okendo plazako eta askatasunaren parkeko garbitasuna zaintzeko:

-Udala igandetako garbiketaren inguruan FCC enpresarekin elkarlanean ari da irtenbide egoki bat emateko.

-Askatasuna parkeko belarra moztuko da hurrengo astean, nahiz eta oraindik Udalaren jabetza ez izan, beharrezkoa iruditzen zaigulako. Azken finean, irudi txukun batek jokaera txukunak bultzatzen baititu.

-Plazan koloretako zaborrontziak

jarriko dira, segur aski uztailean. Herritarrak birziklatzearen beharraz kontzientziatu nahi ditugu eta modu honetan plaza garbiago mantendu.

-Bai plazan nahiz askatasunaren parkean azalpen panelak jarriko dira. GARBIA EZ DA ASKO GARBITZEN DUENA, ZIKINTZEN EZ DUENA BAI-ZIK kanpainarekin bat. Denon esku baitago, gure ingurua garbi mantentzea eta zaintzea.

Honela bada, barkatu eragozpenak eta hemendik aurrera denon artean arazo hau konpontzen saiatuko gara.

Giro ederra Zabaletako festetan

Eguraldiak gauzak zertxobait zaildu dituen arren, festek ez dute urteroko xarma galdu

Asteburuan eguraldia petral xamar ibili bada ere, Zabaletako festek goxatu dute herriko giroa.

Larunbatean, urtero egiten den bertso-saio umoretsuak berezitasun bat izan zuen, ez baitzen ohi bezala eskenatikian gauzatu. Zabaleta auzoko garajea babestu behar izan zuten tarteka erortzen ziren zaparradetatik.

Gainera, Patxi Etxeberria omendu nahi izan zuten Zabaletako auzokideek eta horreta-

rako, Alejandro Romo eskulturgileak egindako Teresa sorginaren oroigarri bat eman zioten.

Proba mista ikusgarria

Igandean, lau talde aritu ziren urteroko proba mistan, Tellerigain, Zubieta, Larrekoetxe eta Zabaletako gazteak. Azken hauek irabazi zuten proba 11'20"ko denbora eginez.

Trontzan, txingetan, lokotxetan eta korrika aritu behar izan zuten guztiek herritar askoren animuez lagunduta.



Amaia Agirre, Ane Labaka, Unai Muñoa eta Andoni Otamendi irribarretsu, Garin Patxi Etxeberriari oroigarria ematen ari zaion uean.



Aimar Irigoien errezildarrak bi minutuko saioak egin zituen 150kg-ko zilindroarekin eta 125kg-ko kuboarekin eta 100 kiloko bolarekin ere aritu zen ikuskizun polita eskainiz. Eskuinean, proba mistako partaideak leher eginda.

Donde las estrellas son ellos

Txakurrentzako ileapaindegia

Txakur eta katuen denda





**TXAKUR ONDO HEZTEKO IKASTAROA, UDA HONETAN.
INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO DENDATIK PASA ZAITEZ**

Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610
Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com